



**Basaburuko Udala**  
CIF P 3104900 J  
31866-Jauntsarats (Nafarroa)

## **2022KO APIRILAREN 13AN BASABURUKO UDALAK EGINDAKO EZ OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA**

Jauntsaratsen (Basaburuan), 2022ko apirilaren 13an, arratsaldeko 17:00etan, ondoren izendatzen diren jaun andereak bildu dira, ez ohiko bilkuran, legearen arabera bideratutako deialdia eginda, Esther Lakasta Perez Ilzarbe alkatearen lehendakaritzapean, eta Lucia Beloqui Iriarte, udal idazkariaren laguntzarekin.

**BERTARATUAK:** M<sup>a</sup> Mar Ansorena, Santos Etxegia, Julen Beunza eta Xabier Azpiroz.

**BERTARATU EZ DIRENAK:** Ricardo Arangoa eta Olatz Dorai.

17:00etan lehendakariak bilkura hasitzat eman du eta gai zerrendan dauden gaiak lantzeari ekin zaio.

### **GAI ZERRENDA**

#### **1.- Iharduera ekonomikoen gunea. Plan Bereziaren behin betiko onespena.**

Basaburuko udalak hasiera batez onartu zuen 2022ko otsailaren 24an egindako osoko bilkuran Beramendin iharduera ekonomikoen gunea egiteko plan berezia. Dokumentu honetan zehazten zen gunearen azalera, kokapena, deskribatzen ziren baita ere, azpiegiturak eta sortzen ziren lursailen ezaugarriak.

Dokumentu honen tramitazioak, 2022/35 Lurralde Antolamenduaren legea garatzen duen 2017/1 Foru Dekretuaren 72 artikulua jarraitu du, eta hortaz hasierako onespeneko erabakia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua izan da eta hilabeteko epean jende aurrean egon, interesdunak alegazioak jarri ahal izateko.

Epe horretan alegaziorik aurkeztu ez direnez behin betiko onespena eman ahal zaiola azaltzen du alkateak.

Aipatutako artikulua b atalean zehazten den moduan "Jendaurreko epearen emaitza ikusita, udalak behin betiko onetsiko du, behar diren aldaketak eginda.

Aldaketa horiek hasierako onespina duen planari funtsezko aldaketa eragiten badiote, jendaurreko beste aldi bat hasiko da, behin betiko onetsi baino lehen. “

Gainera ere proposatutako plan partzial edo bereziak txosten bat beharko du, toki administrazio jardulearen teknikari batek edo foru lege honen 16. eta 18.2 artikuluetan adierazitako organoetako bateko teknikari batek emana, egiaztatzeke ezen plana lurralde antolamenduko tresnen eta udal planeamenduaren arabera dela eta gainerako antolamendu juridikoarekin bat datorrela eta bukatzeke udalak lurraldearen antolamenduaren eta hirigintzaren arloan eskumena duen departamentuari igorri beharko dio behin betiko onetsitako plan partziala edo plan berezia, txostenekin batera, onesten denetik hamar eguneko epean gehienez ere, haren gaineko kontrola egiteko Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legean xedatutakoari jarraikiz.

Hau guztia kontutan hartuta bildutakoek aho batez ondoren zehazten den erabakia hartzen dute:

**.- Behin betiko onespina ematea Basaburuko Udalak Iharduera ekonomikoen gunea sortzeko plan bereziari, eta erabaki hau Nafarroako hirigintza arloan eskumena duen departamentura helarazi.**

## **2.- Iharduera ekonomikoen gunea. Urbanizazio proiektuaren hasierako onespina.**

Industria gunea egikaritzeko lehen pausoa urbanizazio proiektua tramitatzea da obra hasi baino lehen.

Urbanizazio proiektuan zehazten da, industria gunearen sarbidea, NA 411 errepidetik, barruko azpiegituren zehaztapena, ura argia, saneamendu sarea, telefonoa, gunea berdeak eta beste.

Proiektu osoaren kostea milioi bat euro ingurukoa da, alde batetik errepideko sarbidea 100.000 euro ingurukoa da eta berez industria gunea sortu eta garatu 634.000 euro.

Koste hau osoa da, 1 eta 2 faseetarako.

Lurralde Antolamendu Foru Legea garatzen duen 2017/1 Foru Dekretuaren 134. Artikuluan arautzen da “ Urbanizazio proiektuak 74. artikuluan xehetasun-azterketentzat ezarritakoaren arabera tramitatu eta onetsiko dira”, eta aipatutako 74. Artikuluan “ Tramitazioa dokumentua hasiera batez onetsita has daiteke zuzenean.

Jendaurrean hogeit egunez izanen da, hasierako onespina Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik.

Agiri guztiak udal erregistroan aurkezten direnetik hasita, bi hilabeteko epea izanen da, gehienez ere, hasierako onespina emateko edo ukatzeko.

Jendaurreko epean inork ez badu alegaziorik aurkezten, agiria behin betiko onetsiko da, bidezko bada hori egitea. “

Hortaz dokumentazioa eta legedia aztertu ondoren bildutakoek aho batez ondoren zehazten den erabakia hartzen dute:

- **Hasiera batez onartzea Basaburuko udalak sustatutako iharduera ekonomikoen gunea sortzeko urbanizazio proiektua.**
- **2017/1 Foru Dekretuaren 74. Artikulua jarraituz erabaki hau 20 eguneko epean jende aurrean egoteko epea ireki, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren.**

### **3. Erregu-galderak**

Ez dira egin.

Eta gai gehiago aztertzeko ez dagoenez arratsaldeko 17:30 ak direnean bilera amaitut zat eman da eta idazkariak horrela izan dela ziurtatzen du.